

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

50/2019 Foru Agindua, abenduaren 20koa. Aldatzen duena Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren eremuan produktibitate osagarria arautzen duen apirilaren 27ko 20/2006 Foru Agindua

Apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduak produktibitate osagarria ezarri zuen Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren eremuan. Harrezkero, hainbat aldiz aldatu da, hain zuzen ere, otsailaren 14ko 14/2007 Foru Aginduaren bidez, urtarrilaren 22ko 3/2009 Foru Aginduaren bidez, maiatzaren 29ko 82/2013 Foru Aginduaren bidez, irailaren 20ko 103/2016 Foru Aginduaren bidez, abuztuaren 3ko 185/2017 Foru Aginduaren bidez eta martxoaren 2ko 51/2018 Foru Aginduaren bidez eta abenduaren 4ko 154/2018 Foru Aginduaren bidez.

Une honetan beharrezkoa da beste aldaketa bat egitea. Horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko funtzionarioek noizbehinka egiten dituzten txistulari lanak administrazio horren ordainsari egituran integratzen dituen Foru Aginduan ezarritakoa bete behar da, eta L) apartatu berri bat gehitu behar da, txistulari lan horiek noizean behin egiteari dagokion ordainketaren integrazioa artikulatzen duena.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendua onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak –lotuta dago Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikularekin– esleitutako eskumenez baliatuta, honako hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eremuan produktibitate osagarria arautzen duen 20/2006 Foru Aginduan L) apartatu hau txertatzea, zeinak definitzen baitu produktibitate osagarria osatzen duen beste kontzeptu bat:

L) Noizean behin txistulari lanak egitea. Produktibitate osagarriaren bidez, haborokin bat ordainduko da, 12 hilabetetan banatua, eta urte muga eguneratuan ordainduko da, txistulari lanetan noizbehinka aritzeari dagokiona. Haborokin hori urtean 5.244,18 eurokoa izango da, eta 2019an ordainduko da 2018koa, hargatik eragotzi gabe hurrengo urteetarako dagozkion eguneratzeak.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, amaitutako urteari dagozkion hilekoei dago-kienez.

Gasteiz, 2019ko abenduaren 20a

Gizarte Politiken foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA